


TXIKIAK HANDITZEN: HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK MUNDUAN





TOPAKETA



Noiz:

Urriaren 20an
Larunbatarekin
Nafarroa Oinezaren
bezperan



Non:

Altsasun
Iortia kultur gunean



EGITARRAUA

9:30 - 10:30

Hizkuntza gutxituetako hedabideen egoera Europan
Johan Haggman (Hizkuntza gutxituen inguruan
Europako Batzordean 10 urtez lanean ibilia Hizkuntza
Gutxituen Batzordean eta Eleaniztasun Batzordean)

10:30 - 11:30

Euskal hedabideak: iragana, oraina eta geroa
Idurre Eskisabel (kazetaria, antropologoa eta EHko irakaslea)
eta Juan Kruz Lakasta (Euskalerrria Irratiko kazetaria)

11:30 - 12:00

Atsedena

12:00 - 14:00

Munduan barrena, zer?

- a) Mexikotik:** Yazmin Novelo (Yucatango Radio Yúuyum)
- b) Galesetik:** Elin Haf Gruffydd Jones (Social Media and Minority Languages)
- c) Irlandatik:** Rónan Mac Con Iomaire (RTÉ, Irlandako Irrati-telebista kate publikoko gaelera arduraduna)
- d) Eztabaida irekia**

KONTUAN IZATEKOAK

Lehenengo hiru hizlarien bitartez Europako eta Euskal Herriko egoera orokorra zein den ezagutzeko aukera izanen dugu. Ondoren, Mexiko, Gales eta Irlandako hiru hedabideen esperientziak ezagutuko ditugu. Hiru hedabide hauetako ordezkariak beraien azalpenean hurrengo lau puntuak jorratuko dituzte:

- Herrialde horretako hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa (zenbat biztanle, zenbat hiztun, hizkuntza erabilera, hizkuntzaren statusa eta abar).
- Hedabide horrek duen garrantzia hizkuntza horren biziberritze prozesuan.
- Hedabide horren egoera administratiboa (laguntzak, zailtasunak eta abar).
- Hedabide horren erronkak aro digitalean.

Amaieran topaketan parte hartutako ordezkariak Txikiak Handi manifestua sinatuko dute.

TXIKIAK HANDI MANIFESTUA

Behean sinatzen dugunok

Adierazi nahi dugu:

- Mundua eleanitza dela.
- Hizkuntzak altxor kulturalak direla, eta horrek aniztasuna eta aberastasuna ematen diela munduko herrialdeei.
- Hizkuntzak herrien eta pertsonen identitaterako eta garapenerako funtsezko tresnak direla.

Aldarrikatu nahi dugu:

- Hizkuntza gutxituek ere errespetatuak eta kontuan hartuak izateko eskubidea.
- Gure hizkuntzak normalizatzeko behar adina laguntza eta babesa izateko eskubidea, batez ere hezkuntza arloan.
- Gure hizkuntzek legaltasun osoa izateko eskubidea euren eremuan.
- Gure hizkuntzetan bizi ahal izateko eskubidea, gizarteko edozein esparrutan.

Honako konpromiso hauek hartu nahi ditugu:

- Hizkuntzen normalizazioan lanean segitzeko gure arteko zubiak eraikitzea, txikion batasunak handi egiten gaituelako.
- Manifestu honi ahalik eta oihartzun zabalena ematea.

BIZI

HIZKUNTZA



Antolatzaileak



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

